Euzkadi

¡GABONI!

Urtiak daun egunik
Ospetsuena
Euskelerian beintzat
Gabon eguna.
Oldozmenez beterik
Jarten gaituna,
Zorioneko Gabon
¡Gabon kutuna!

Mangutsik dinbi-danba
Aizkorotsian,
Mukur txitzen gogor
Dabiz... ertzian,
Montorrak eiten dabez
Ezkaratzian
Afari-gertetako
Gaur arratsian.

Sukaldiak berorik
Goruntza keia,
Talletutik ortzirantz
Pozkiro doia,
Goitarrai esan nairik
Gabon alaia
Ospatseko bai-dabil...
Etxekandria.

Seme-alabak batos
Jayotetxera,
Gurasoak urtetan
Dautse atera,
Besarkatzen dirala
Kistar antzera,
Gabon ospatuteko
Danak batera.

Aspaldi kanpotik zan
Senar maitia,
Noz elduko zain dago
Bere emaztia.
Eldu da ta kaxk, kaxk, kaxk,
Jo dau atia,
Ospatuteko Gabon
Pozez betia.

Entzuten dira sofiti
Pozkarizkuak,
Dunbadak, oyu, zantzo
Eta txistuak,
Maian jaki, edaki,
Guztitaikuak,
Gabon ospatuteko
Gerteurikuak.

Biztoki biko etxe
Zabal batian,
Bendi bi bixi dira
Bake-bakian,
Alde baten aberatz
Umedun alarguna
Ezerezian.

Umetxuak amari
Esaten dautse:
"Etxekonian bauke
Nai zenbat gauze,
Difuse "Gabon bonbon"
"Ase ta bete"
Areik dana ganezka...
Gu barriz gose".

—Ene kutuntxuok gaur
Ez ein negarrik
Ezarie lotuko
Ezer bagarik
Ez dauku bixigurik
Ez oriorik
Baña tatuak janguz
Bero-berorik.

Lenengo baña goruntz
Jaso biotzak.
Zeruratu daitezan
Gure otoitzak,
Belenerantz begira
Otoi bakoitzak.
Onetsi gaizan andik
Josu on utsak.

Belen-aurrian... gogoz
Ama ta ume
Belaunbiko agurtza
Otoizten dabe
Sendi Deunaren aintzaz
Gokaxo-alde
Kistar zintzoen eraz
Nagirik bage.

Otoi beruak egin
Ondorenian
Zutundu eta bira
Ein dabenian
Mutiko bat dakuse
Aldamenian
Ta otsara betia...
Maian ganian.

Mutikuak dirautso
Alargunari:
"Josu'ren izenian
Amatxok neri
Emon daust bezuzadun
Otzara ori
Danok egin daizuen
Gabon-afari."

Mutikuai dirautso
Samur maitetsu:
"Amatxori millesker...
Esan eiozu".
Ta beren ume zurtzei
Egiñik mozu
Diño: ¡"errukitu da
Gurekin Josu!
Poztu ba enetxuok
¡Poztu bai-poztu!"

Urtiak daun egunik
Ospetsuena
Euskelerrian beintzat
Gabon eguna
Oldozmenez beterik...
Jarten gaituna
Zorioneko Gabon...
¡Gabon kutuna!

E.'TAR KEPA.

ENTZUN

Emakume batek sein bat gura leuke asteko. Barririk jakiteko EUZKADI ra jo. Urrutizkiñez, Urduliz, central era.

ERRIETATIK

MAÑARI

DABILTZANAK

Santurtze'ti ketorri ziran Kapanaga'tar Baldomer bere seme-alabakaz ta Bartzena'tar Agapita emaztiagaz.

—Eibar'tik Zarobe'tar Pausta mutilla.

—Emen aldi luze bat igarota, lengo astian juan zan Bilbo'ra Uriarte'tar Pantzeska.

—Arrasate'ra juan ziran Ibarra'tar Errupin txaunburu jauna, Iturriza'tar Kolestiñ emaztiagaz ta Ariznabarreta'tar Atanase irakaslemia.

—Otzandio'tik etorrita dago Basaguren'dar Gabirele neskatillia.

EZKONTZA

Laster ezkontzen dira Inzuntza'tar Miren Baraya'ko neskatillia ta Jayo'tar Maren Durango'ko "Gibela" deritxon basetxe'ko mutilla.

GEIXORIK

Elizakuak artuta dago Kapanaga'tar Pantzeska (Patxi Kabrera). Arin osatu, Patxi.

BEARRAK GELDITU

Ur-saltu'ko bearrak, eguraldi txarrak izan diralako edo, alditxu baterako gelditu egin dabez. Au dala-ta, eundaka gizonak jan barik lotu dira. Ta ibili diran kanpotarrak eureen errietara alde egin dabe.

KALTEA

Lengo egunetako eurite andiakaz, arrobi barrian lurrak nar anditxua egiñ eban; eta naiko kalte egiñ ei-da.

"JAUNGOIKO-ZALE"-REN

Datorren urterako "Jaungoiko-Zale"-ren egutegia Amantegi'tar Lon'en etxean dago salgei; bakotxa sei txakurrian. Bere orri artian, beti lez, gauza eder asko agertuko da; ta jakingarri, ipuiñ, izkirimiri ta abar ondo orniduta etorriko da. Erosi ba.

"BIZKAITARRA"

Asteroko begko, au beti lez, eder eta txukuna dator. Len, Arana-Goiri andiaren opaz ta orain Bolibar ospetsuaren opaz ekuleko ederren agertzen da. Edozeiñeri begia betetako eran beti datorrelako jentiak pozik irakurten dau.

BASO-IBILKETA

Urlije, Berendije ta Sandijetxu, entzun dot zeuoen lagun batzukaz baso-ibilketa bat egitekotan zagozeela. Ta ibilketa ori oso polita izango dala... Neu be lagun gura nozue ala...? ¿Bai? Tira ba; egun orregaz sarri dagit ames... eta poz-pozik naz...

Gomuta gozo-gozoak doguzan zugatzarteko basotxono politean, txori abesti samurrakaz geure goiz-otoitzak zeruratuko dira... Ta, Sorabil-iturri'ko landa ederretik oinkada leunez mendi egala joko dogu. Ta andik arririk-arri trizki ta trauzki atx-gallurrera igoko dogu... Gallur aretan, arte-abar orritsuakaz sua eginda, burduntzikua janez, ipuñaketa ipuñak kontauko doguz. Azkenez, O.'tar M. neskatilliak gorengo arri-mokilletik, begiak sorkalderantz dituala ta biotza izarrak baño be askoz gorago dabela, "Ego barik egaz" deritxon ipuiñ antzeko jazokuna edestuko dausku... Guazen ba.

MAÑARIKO.

DONOSTIA

OMENIK ONENA

Eusko antzezki ta eusko antzokien langille ta eusle zintzoena dan, Alzaga'tar Toribi, gaur omenduko da.

Ondo baño obeto irabazita dauka, donostiar jator onek, "Euskaltzaleak" artutako asmo egokia.

Euskel iztundea dalata, jaun onen lana agertzen da, bertan zenbat lan egin duan, berakin batera aspaldiko urtetan gabiltzanak, ederki dakigu.

Antzerkiak egin asko ez dala, antzoki jai batean biar oi diran tramankulu, jantzi ta abar, antolatzen ere ez da lan gutxi egin biar, ez ori bakarrik, antzezlarien ikasgaiak (paperak) ere, beraik idatziak izaten dira, ta ontan beti Alzaga jaunak erakusten digu, bere iztunde airi dion egizko maitasuna.

Bere omen egun au, egunakin batera itzaltzen dan alperrikako omena izan ez dedin, lerro abek zuzendu ditut.

Alzaga jaunak, bere biotza jarrita daukan iztunde ontara, irakasle berri oso gutxi datorz, ta lau, zortzi, amar ta geigo urte abetan, iztundean geran antzezlariak, ezin beti jarraitu genezake, ta irakasle berririk ez sortzea. Altzagaren bizia dan iztunde maitea, itzaliko da.

Au gertatu ez dedin, abertzale gazte, ta "Euskaltzale gaztedia"-ren biarra dala iztundea indartzea, txertu gazteaz bizitze derizkiot.

¡Oitura ta gogo euskotarra dezuten neska ta mutil gazte euskotarrak, eman zuen izenak iztundean. ¡Iztundeko antzezlari izateko asmo ta gogo zindoa, gaur Alzagaren omen egun ontan artu ezazue, ta au izango da Alzaga'ren biotz onak, maitatzu eskertuko dizuen omenik onena.

Eusko antzerki ta eusko antzokien eusle ta langille gogotzu onen omen egunian, eusko abertzaliak, euskeltzale gaztiak opatutako omen au izan dedilla, omen ta apari onurakor, ta iraunkorrena.

ATARRENE.

AZPEITI'TIK

EUSKALTZALEAK ZERTARAKO?

Badakigu Udalak erriko euskaltzaleai laguntzeko artu duan erabaki agatik emengo batzuek mindu egin dirala.

Erabaki ori ontzat artzen ez duten oyek bai al-aldakite lenbizi zer asmo ta eginkizun beren gaiñ artu dituzten izakun orren buru egiten dutenak?

Ona emen beren asmoak.

"Euskera zaindu ta zabaldu, eusko-jakintza egokiro ta iraunkorki azi ta ugaritu, ta eusko abenda gogoa piztu. Ta nola au lortuko dute?

Era onetan: adiñdunentzako gau-ikastola ta umientzako ikastola gure izkuntzaren idazkera ta ezaguera ikasi nai dutenentzako iraši; antzeki-jaiak egiteko antzerkilari talde bat ipiñi; ta eusko dantzari, abeslari, txistulari ta Euskal erriko beste ereskindariak sortu-erazitzea, eusko jakintzaz ta ikaskuntzaz itzaldiak antolatu erri ta erbesteko jakitunen bitartez; ikaskizun saillak (Circulo de Estudios) bazkideak euren ikasketak ta lanak azaldu ditzaten irastea; lengo oitura zarrak, adibidez "Agate Deuna-ren Abestaldeak", "Jaiotzak", "Olentzaro", "Jon Deunaren Aurreguna" olerkari eta abar; azkenik gure izkera eder, ta Euskal-erriaren on eta aintzarako izan diteken guzia.

Agerketa onezaz jaun ovek ikusi dezake diru laguntza bearrian arkitzen dirala "Euskaltzaleak" eginkzun ta asmo danak betetzeko ta ezagutuko dutela ondo emana dagoala.

Udalaren aldetik dru ori.

ITURRI-TXIKI.

TOLOSA

ERIOTZA

Joan dan larunbatean Jaunak bereganatu zuan Mugerza'tar Iñaki mutil gazte zintzoa. Aren sendiari laguntzen diot atsekabean. Irakurle, otoi aren gogoaren alde. Goyan bego.

EUSKO-BATZOKIAN ANTZERKI-JAIA

Alaitasuna... euskeltasuna... eusko usaia... aretoa, euskeltzalez beteta; ezpain danetan, euskera maitea; biotz guztetan, abertzaletasuna..., antzeztoki-goyan, gazte talde bikain bat, mutil sendo-bulartsuak, neska eder, lirain polit-politak. Ona emen batzokiaren azaltasuna antzerki-jai aldian.

Noizean bein, gure eskuak bata besteakin alkartzen dira nai ta ez. Gure begietara baldin begiratzen badezute, antzez-tokira dijoaztela... arrigarrizko txinpartak irtetzen dirala ikusiko dezute. Antzerkijaia amaitzen danean, poz-pozik itzultzen gera gure etxetara; badakigu, an agertu dan gazte-taldea, berriro lanean ari dala, beste ume atsegin batzuk guri igaro azitzeko.

Joan dan gandekoa, txit atsegingarria izandu zan, ¡ben-benetan! Artzazute antzeslari jatorrak nere zorion beroena: Munita'tar I., Sansinenea'tar P., Ayerza'tar P., Elizegi'tar M., eta Goikoetxea'tar J., andereño txit zoragarriak. Barrio'tar E., Elosegi'tar J., eunda'tar P., Peña'tar S., Intxausti'tar J. eta Urruzola'tar E., morros ko zintzo-zintzoak. Len esan detan bezela artzazute denak nere zorion beroena.

Unuzkero nortxo batek esan du: eta kaiku galanta orrek gorde egin ote dizkik Moraiz aizpatxeak eta Elizagi'tar I.? Bai zera, ez orren gaizki oldoztu. Nere biotz txiki, kaxkar ontatik irte leiken zorionik beroena iruko onentzat utzi det. Moraiz aizpatxoak, berriz ere zuek ikusteko egarriz gaude, ia urrena noiz dan. Biak oso ederki agertu baiziñaten; biak gero, e... biak berdin. ¡Alako alkar-izketarik!

Orain agertuko da "maixua", Txapelak kendu, Elizegi'tar Imanol. Gora bat bota dezagun mutil-jator ta abertzale zintzo onen omenez. Bañan... ezin diat iñolaz ere, ezin diat oldoztu, nun daukaken alako gatz mordua, bestiak zion bezela "larria izan". ¡Bejondeizula Imanol! Antzezlaritaldea, etengabe. ¡Ekin eta jarrai!

ITZALDIA

Iragarria zegon beezla, larunbat-gabez izan genduan seigarren itzaldi aberkoia. Izlari Agirre'tar Joxe Mari. Txit egoki itzegin zigun. Agirre jauna mai-maiz agertu zaite, egarrik bai gaude. ¡Zorionak!

UZTURRE.

AZKOITI

ABERTZALEAK

Arrituta-oso gaizkitzat, artu degu, gure Aldundian artu duten erabakiaz, euskera ikastoletan geitu biarrian gutxitu egin digutela. Asmo gelgarria benetan, orrela mintzatzen diren aldunak, euskaldunak diranik ezin gentzake esan. Ez dira urreratu ere egiten, utikan emendik, atzerrira bioaz, oieri autarkia emango dion euskaldun benetakorik izango ote da aurreruntz, ez biar beintzat, Euskera baztertu nairik dabiltzen gizontxoak, aurrean jarriko ote ditugu zuzendari gure erkian? Ez orrelakorik aurrera ez dedilla gertau, tamalgarria, gure izkuntza maitiak orrelako semeak euki biarra etxian, kendu. Bota euskaldun atzerrizaleak.

ALDUNDIKO LENDAKARIARI

Aldundiko lendakariari asarrea urrutizkiñez azaldu diote, Uri Buru Batzarrak eta eusko Batzokiak, alderdikide eta bazkidian izenez, kementsu gure indar guztiekin, oso txartzat artzen degu euskerari egin diozuten iseka, zuen erabaki tamalgarri zoritxarrekoakin. Larrañaga'tar Kol dobika, Zubizarreta'tar Imanol.

MATXIÑADA

Errekaltzalle ta ezkertar komunistak egun auetan euki dutenari, gure erriak jaramonik gutxienik ere ez dio egin, biarrian jarraituaz guztiak zintzo. Prieto lagunekin agintari jartzen dalako naia dutelako poztuko ote gera bada, zentzuna duena ez beintzat. Gauza onik urtengo leuke beokaz, askatasuna beontzat, bestiak lotuta, Orren billa dabiltza oiek, beren egikerak ikusi daitzagun naiko-da.

NASKALDIA

Elgoibar'tik etorri ta emen izan degu idazlari Mirentxu bere alaba Mirenekin, baita emen agurtu degu Mendaroko idazle "Itarpe" jatorra.

EGI-ALDE.

ZEANURI

GABONAK

Atetan doguz urteko yai pozgarriak. Abenduko aro au guztiz alaya izaten da Josu'ren yaiotza daukogulako da elexa amak guztiz andikiro ospatzen dabena. Orregaitik eliztar guztion biotzean sortzen dan poza, guztiz andia da. Baserrietan itxaroten dira beti be beste leku askotan lez etxetik at kanpoan daben sendikoenbat egunok iparottn etxeratuteko. Da sukaldeko gauzak gertetan dira albait ondoen; besigu errea, intxaur-saltsa, txurrute ta abar. Baita mutil neskatotxoentzat egoten dira urte guztian begien aurrean ikusten eztaben konterba kaxa da gozo gauzak.

EGURALDIA

Eurite itzalak euki doguz emen be, izan da mune urrutu da abar ugari. Saukutze basetxian da Oruen-etxe aurkaraño arlo andiak etorri yakez, mendiek naz eginca. Baita beste leku batzuetan bideak rarratuta ure kortetara sartu ta baragarri ibili dira Gorbei da Lekanda mendiok estalgi zuriagaz agertu dira ta axea otza dabil aldi onetan.

NASKALDIJA

Etorri direnak. Iruña'tik da Burgos'tik Sagarna Aratta da Pujana ikasleak.

Muxike'tik Etxebarria Bitor jaupari jauna.

Valderredible'tik Intxaurbe Peli irakaslea.

Ama gaixorik dagoana ikertuten etorrite emen izanda Deun Jakoba Bilbo'ko ikastetxe'ko nagosia dan Larrazabal jauna.

Gazteiz'tik etorri da Angoitia'tar Gergori abade geya.

Bilbo'tik Ureta, maistra ikaslea.

ERIOTZAK

Emen zeyan il zan igaro dan igandean Zubillaga'tar Makari (G. B.). Aspaldian makal samar ebicen gixaxoa. Lengo aldietan eguraldi iragarlea be bazan da baten baño geyagotan argitaldu be izparringian Arrinda'n antzera. Laguntzen dautsegu atsekabean sendiari ta otoi arimaren alde.

—Baita Lanbrea be basetxean il zan Agirrezabala'tar Narkis (G. B.) mutilla. Txikita'tik gauza etzan lanerako enbalidu egoanda. Geure tamal agurra sendiari ta otoi arimen alde.

BASERRITAR BAT.

ERRIGOITI

BIDEAK APURTU

Yoan dirian euriekaz Gernikerako bideak nar egin dau leku baten eta beste leku askotan yausi dire lur mendiek eta Gernikera yoateko Morgatik ibilli biar daude automobiceк

NASKALDIE

Iruña'tik etorri de Agustin Erezuma, irakasle ikaslea. Guda ontzi batetik, Erramon Erkoreka, uletzakoa; Ferroletik, Santiago Orbe ta Marcelino Asla.

S.

Laster ezin esango deutsugu

ABARRAK

erosi daizuzala. Erdiak baño geyago aspaldi joan ziran.

Ain barik geratu bear ezpadozu, gaur bertan erosi egizuz.

Eskatu "Euzkadi"-saltzalleari. Bi laurleko bakotxa

EGUNEKUA

Euzkadi'tik

EUZKEL IXENAK

ELANTXOBE'ko Deun Nikola txadonan ugutzau dabe Arego'tar Bernarta'ren emaztiak izan daben semetxu jayoparria. Aitor Joseba, euzkel ixen ederrak imiñirik. Besoetan artu eben Magunazelaya'tar Kaime eta Fuldain'dar Igonek. Zorionak guztioi. Erri onetan aistuta esan leike egon garala euzkotar ixen politakaz, ikasi ba euzkotarrak eta jarraitu gogoz aurrera.

ALDUNDIAREN IKASTETXEAK

Gipuzkoako Aldundiak 100 ikastetxe egingo ditu. Aurrerantzean gure Gipuzko txiki bañan polit ontako erri koskor guziak ikastetxe eder eder bana izango dute. Ori ederki! Aurrerapenezko asmo ta egipen guziak biotzez txalotzen ditugu ta sutsurik sutsuenez gure Gipuzko ontan egiten diralarik.

Gure biotz-agurik onena bada Aldundi agurgarriak!

Bañan, ikusi degu Aldundiaren "asmoz-agiria", bai, ardura aundiz irakurri ere. Ta?... Zer diogun?... Akats asko nabaitu dizkiogun edo...? Utsuneren bat ote?...

Guretzat utsune aundirik aundiena: euskel-gaitzá.

Euskera badijoakigula?... Oraingoan bai aizea baño areago izkutatuko zaigula betiko...

Mendian dauka gure euskera gaxoak bere kabia... ¡¡Ain txikia bera ere!

Bañan, oraintxe ostuko diote kabia... sapuztuko diote... Zeñek uste dezute? Entzun ondo: belarriak erne. Ba... ba... 100 ikastetxeak euskera arras galduko digute.

Egia ote? Bai. Ziur, ziur gaude. Ez daukagu eztabaidarik. Ez lausorik begietan.

"Euskera gurea da ta etzaio bigarren tokia eman bear. Erdera ikastea ondo dago. Bai ta bai. Bañan, erdera ikasi ondoren euskera berriro, bai ta baitare. Bidea ori da, ez da beste biderik.

Euskeraren alde gogo biziz ibilli dirala esan digute diputadu jaunak. Sinisten diegu ta pozten gera euskera maite dutelako, bañan gogo ona utsa da egin-bideak okerrak baldin badira.

Putzura erori baño len, ez erortzeko bidea ikasi bear da.

Gero negar ez egiteko garaiz gaude oraindik eta... ikusi... ikusi.

Diputadu jaunak guk au diogunean zerbait badala uste izan bear dezute.

Guk ere zerbait badakiguta. Ala izango da.

ALTZAGA'TAR TORIBI

Altzaga'tar Toribi jaunaren eguna! Gaurko eguna da egun ori ta ederki aukeratua gañera.

Altzagak Santomas egunez ainbeste garaitza ta egun oyetan ainbesteko garaitzak noiz izan ditu?

Aurtengo Santomas-eguna da berari omen eta maite-agur gogotsu-beroa egiteko aukeratua, bañe, urteroko Santomasak ori bera egiteko jartzea ere ez litzake geyegi izango. Ez orixe!

Eusko-antzerkia txiroa dala; indar gutaxi duala oraindi...?

Altzaga jauna izan ez balitz, ez aberatz ez txiro, batere ez genduan izango.

Ondo irabaziya du beraz gaur egingo diogun omen jaya.

Goizian bertsolari dema. Euskalerriyan dtugu sari billa.

Bazkari ederra gero. Gaur inguruko euskaltzale guztiyak Principe jatetxen txoko txikiren bat naiko dute.

Azkenik arratsaldian eta gabian antzerki jayak.

Lengo, oraingo ta geroko antzerkigilleak lanean ikusi nai dituanak "Victoria Eujenia"-ko antzoki txulora bijua.

Gaur Altzaga'ren eguna. Gora eusko-antzerki sortu, txupertu ta ndartu duan Altzaga'tar Toribi jauna.

Gora milla bider.

("Argia"-tik.)

Biotzez Euzkari eguneroko onek agur dagio Altzaga jaun agurgarriari eta bere poza agertzen dautso lerro onein bitartez. Berein lan egin dau Euzkadi'ren alde bere urte onenak emonik. Antzaldu eta goraldu daiguzan olako gizonak.

JAZOKUN NEGARGARRIA

Jazokun negargarria izan da benetan Zugaztieta onduan, Gernikako bidean jazo dana. Mendi andi batek beerantza egin dau eta bere jauste orretan baserri eder bat aspian artu dau. Apraiz'tar Andoni euzkotar zintzoa bizi zan etxe orretan, orain irurogei urte bere aitak egin eban etxean. Orain alditxu bat ikastolak batzuk egin ziran bere etxe onduan eta igarten zan zer edo zer mendiari jazoten yakola, ikastolak karrakalduten ziralako. Baña iñok ez eban uste oraingolakorik jazoko zala.

Igaro dan asteko eguben gabean guztiak ogean egozan etxeko andrea bakarrik ezeze. Au kistar onatan bere ona dan ezkero guztiak ogean egozala Josu'ren Biotz deunaren aurrean otoi egiten eguan. Areto edo salako atea idigi gura izan eban, baña gogor egoala nabaitu eban. Ots edo dedar egin eutson bere alaba bateri ta biak zabaldu eben atea. Ikeratuta lotu ziran etxeko ormak arraskalduta ikusi ebezanean. Etxearen gomuta barik ikastolak zelan egozan ikustera laguntzeko amak eskatu eutson alabeari. Joan ziran, baño bidea, bitxabala zulatuta egoala ikusi eben.

Arbiña, deritxon baserri eder au, bitxabal onduan eguan. Gernikako trenaren bidea goitik, beerago bitzabala eta orma andi baten onduan etxe ederra eguan. Errota eta gareitiko gauzak ondo baño obeto egiñak egozan, etxeko jaunari atsegin yakon guztia ondo eukitea eta.

Ikeratu ziran ba ama-alabak olan guztia ikustean eta ots egin eutsen etxekoai. Arin jeiki ziran ba eta Apraiz urten zan kanpoan ezer eguan ikusteko. Bitxabala berrogeta amar metro inguruak arraskalduta eguan. Etxeak krakra egian eta ikastolak jausita legez irudian. Arin an dagon ermitako abade jaunari dei egin eutsen eta ara eldu zanean arin urte egie etxetik esan bere. Bai ba mendia beera etorren eta. Al izan ebana artu, ta etxeko guztiak urten ziran arin kanpora. Larritasun andi benetan danentzat, baña etziran aztu besteakaz bere. Bostetan, goxaldean igaroten da andik Gernika'ko trena. Gaba zan eta illuna. Iñok ez ekian an zer jazo zan. Bultzia etorko zan eta bidea jausita, irurogei metro inguruan egoan legez, negargarrizko jazokera an izango zan. Baña etxeko andreak gomutan euki eban trena ta arn bialdu eban notin bat arren ez egiala urten trenak. Ordu onean, ezpabere an izango zan lorra. Bat etzan bizirik lotuko, ogeta amar metroko alturatik jausiko ziran trena eta danak ba ta. Uste dogu Gernikako trenekoak eztabela aiztuko andra onen mesedea.

Atara ebezan al izan ebezenak etxetik ba ta foralak bere etorri ziran etxe ingurura. Lurrak jausten zigan geldiro geldiro. Eta ezin siñistu al izango dabe askok. Etxe eder ederra ezta ikusi bere egiten lurpean. Len ikusi eztabenak toki a esango leuke an ezer eztala egon. Larogei milla lauerleko baño geyago balio ebazala etxe arek guztiak diñoe, eta etxeko gaxoak txakur txiker bat bere barik lotu dira. An jazo dana igarteko bertara joan bear da. Inguruko beste bost etxetakoak bere urten bear izan dabe kanpora ta an dagoz etxeak iñor bari Ermitako jaupari jauna bere kanpora joan da. Lurrak jausi diran tokitik irureun metro inguruan dagoan ermiteko Gura Jauna atara dabe kanpora, arrzku andia dago an eta. Zazpi dira Apraiz enekoak eta ezer barik lotzen dira. Uste dogu euzkotarrak lagunduko dautsiela gaxo onei. An bizi ziran pozik etxe ederra eurena ebiela ta orra or une batean ezer barik geratu dira. Beste toki batzueta atzera egiten bere asi leitike, baña an ez. Arri ikeragarriak etxea estaldu dabe eta andik igaroten zan errekea ogei metro goragotik doa orain.

An lotu dira etxepean tresna ederrak, errota onena euken eta. Ikastolak bere non egozan igarri ez egiteko eran. Bidea eta inguak ondo ipinteko milloi bat bearko dala esan dabe batzuk. Apraiz'ek oldoztu bere ezin egin leike an etxerik egitea. Betiko ondatuta lotu dira. Biotz oneko guztiak uste dogu zer edo zegaz lagunduko dautsela arei, batez bere inguruetakoak. Gernika aldeko yenteak buaz ara ta negarrak begietatik urtengo dautse. Sendi guztia etxe barik dago. Zelan jazo ete leitikean ori itaunduko dau batek edo batek. Orain urte bete Apraiz'ek esan euskun trumoi andi batek mendi dardartu ebala. Arraskalduta lotu zan ba ta oraingo euriak lurra ta arriak beerantza eruan dabez. Mundua mundu danetik an baserririk izan zala iñok eztau uste izango aurrerantzean. Ogei metroan baño gorago ezta arria baño ikusten.

Arbiña basetxeko sendiai lagunduko al dautsegu guztiok.

"ARGIA"-REN EGUTEGIJA

Aurten be "Egutegi" polita argitaldu dau Donostia'ko asteroko begiko onek. Guri ijeki bat bidaldu dausku, ta guk abegi onez artu, ta poz-pozik irakurri dogu.

Marrazki politakaz-eta apainduta, txukunki irarrita dator, ta idaz-lau ta olerki ederrez ondo orniduta ganera. Izkirimiritan be edozenbat dakaz, ta benetako izkirimiri barregarrijak ekarri be.

Geure zorijon-agurrik sutsubena "Argia"-kuari, eta eskarrik asko.

GOIZPARRA

(Luc. III-1-16)

Tiberi Erromako nagosiaren amaboskarren urtean, Pontzia Pilatos yudenen agintari zala, Herodes Galilea'ko errege, onen anai Pilipu Iturea ta Trakonitidas zeritxen alderdietakoa, eta Lisania Abilini'ko errege, Ana ta Kaipa abade nagosien agintarizkoan, Jaungoikoak itzegiñ eutsan basamortuan Zakarias'en semeari, eta etorri zan au inguruko errietara, edonun bataia-bearra agertuz, pekatuen parkapena yadisteko. Isaias igarlearen itzaldi-liburuan esana dagoan lez: "Basamortuan oiu dagianaren abotsa: gertau izuez aren bideak, zuzendu izuez aren bidexkak; ibar guztiak beteko dira, ta baso ta muno guztiak zapalduak izango dira; bide okerrak zuzenduak, eta bide latzak lautuak; eta gizon guztik ikusiko dau Jaungoikoaren osasuna".

Españia'tik

LAURLEKOA BIZTUTEKO

Madril'dik. Romanones yaunari agertu bat egin ei deutso Obakuntza arazoa daukan ministru Wais yaunak, eta biek laurlekoari buruz itzegin ei eben, beste arazotan sartu barik.

Nik uste —diño Romanones'ek— Wais yaunak gizon bakotxaren eritxia eskatzean asmatu egin dauala. Gobernuaren politikaraura, burubide ori iraunkorra da, ta iraunkor izateak emongo deutso ondorerik onena. Adierazo deutso ganera Wais yaunari, laster aldegin bear ta bere, luzaro egon bear bai leban yokatu daitela.

Romanones'en ustez iru mailla ostatik yoan bear da asmu ortara: lenengoz balioa barritu bear yako diruari; gero bere batean gerarazo, bai egitez, bai eskubidez. Gorputz-urratzean sukarra oztu bear dan lez, dirua bere baitara ekartzeko bere olango bat egin bear dala diño.

Obakuntza arloa daukan ministruak, bideak irakatsi ditu ta zuzenak dirala esan lei, ointxetik dakusgunez. Neure txaloak Wais yaunari.

Lengo egunetako zaratak arren, laurlekoak eutsi deutso matxinadari. Libra 55'raño igotea gauzak ekarrena zan, baña ez dago igo 48'tik. —Laurlekoa esku onetan dagola esan daikegu—esanez amaitu dau Romanones yaunak.

EGAZKIÑAK ETXERA

Jaka'n yazo diran gauzetarako Zaldu'ra (Zaragozara) yoan zan egazkin-saldoa, atzera etxera etorri da.

DIRUAREN BALIOA

Franco'ak, 37 laurleko.
Libra'k, 45,50.
Dolar'ak, 9,41.
Marko'ak, 2,24.

BARTZELONA ALDEAN

Gudari guztien buru dana!: barriketariai esan deutsenez, erki osoa baketan dago. Buruzagi ta opizialen batzorde batek agertu bat egiñ ei eutson erañegun, Gobernuari mentasuna autorteko Despujols jeneralak zorionak emon ei eutsezan, Jaka'ko lagunen yokabide onaz.

Catalunia'ko burdin-bide bazkunak, Laterriagandik diru-laguntzarik izan ez arren, ez ei dau sarrik artu gura izan, gudariak aldatzearren.

Bartzelona'ko batzoki sindikalistak ertsi ei dabez lan-alkarteari yagokozalako. Baita ertsi dira Erri-etxe batzuk, gudari agintariai gaztigatu deutsenez. Erabat ertsi dabezan ala ez itandu eutsoen Despujols yaunari, ta, au Gobernuak erabagi bear dauala erantzun eban.

DANTZA BITARTEAN ASERREA

Toledo'tik. Buenaventura deritxon errian dantzan iñarduela, mutil batzuk aserrea sortu eben, euretako batzuk neskatilla batzegaz dantza egin gura ebelako. Atsedenaldian, neskatilla bere amagaz berbetan ari zala, bost mutillak aizto edo kutxillukadan egiñ eben. Larri zauritual izan dira Dionisio Bermejo, Candido Martinez, Tomas González, Jesus Gonzalez Ruiz eta Francisco Muñoz. Oen artean bakea ipiñi gura eben beste lau gazte bere, zaurituak izan dira, ariñago arren.

EGUBERRIKO LOTERIARI BURUZ

Lan-arazoa daukan ministruak argibide bat emon dau, datorren 22'garreneko loteria dala-ta, galazorik dagola errezkadak banatzea ta saltzea, igandeko arrastiriko zazpiretatik asteleneko ordu bereraño. Agindu au austen dauanak zigorra izango dau.

Baimena da, ostera, ezaguerak emoteko, iragarkiz, irratizkiñez, urrutizkiñez eta urrutidazkiz.

Atzerrietatik

LONDON

"Mai Biribil" inguruan eragozpen andiak sortuten dira India'ri lagi batza on bat emoteko ta inditarrak morroitzatik atarateko. Auteskundietan nortzuk autarkia eukiko daben jakin gura dabe orain, lenago batzuk bakarrik autarkia euken bata.

BERLIN

Sumatra ugartetik eldu diran barriak dakarre zelan il dan Brochard jaun jakintsua. Beragaz batera b te amabots bere il dira Narapi sumendiaren taupada bat izan dalata. Sumendi ori aspaldian itzalita egoan eta ara joan diranean yente andiak ikustera, berpertan su egin dau. Larogei il ei dira.

PILSUDSKI

Silesia Goikoan izan diran saratak diralata auteskundeetzaz, ots txarrak entzuten dira Polonia ta Alemania aldean. Posen eta Pomerania inguruan sarata txarra dabil eta gobernuak bere idatzi dau gogorkiro.

PARIS

Poincare jauna onean ei dago egun oneitan. Areika urrutidatzi eldu yakoz egunera zelan ete dagoan jakin narik. Sendikoak osatu dala diñoen arren aldi luzea bearko dau osatuteko.

TOKIO

Sarata andia egin dau sobietak sarratu dabelako Japon'go txindi etxe bat. Vladovostok eritxon etxe orreri ta japondarrena zan. Multa andia ba; ordaindu bearko dau, 2.600.000 rublo idigitea nai badau, bidezkoak eztiran salerosteetan ibilli dalako. Atzerritar txindietxeak lurperatu gura dabez sobietak.

IZPARRINGIAK

Ingalandar izparringiak lerro luzeak dakarrez Españian izan diran matxinadak diralata. "Morning Post"-ek goralduten dau gobernua bizikiro portau dalako.

"Dayli Maili"-k bere erregea aintzalduten dau ondoportau dala ta. Comunista izan dala matxinada au diñoe ta gogor egin bear dala bertan bera ilteko olako purrustadak.

HABANA

Barruko ministruak debekatu dautso at urtetea "El Diario de la Marina" deritxo izparringiari. Aldo Paroni artezkari jauna espetxean sartu dabe. Izparringien bazkuneko zuzendariak bere asarrea agertu dau, izparringi orrek eztabela ezer agertu orretarako eta. Cuba'ko izparringi zarrena da ori.

PARIS

Joffre andereak guzurtu dauz bere gizona gexorik dagoala zabaldu dabezan saratak. Neguan ibiltaldi bat egiteko gauzak gertauten dagozala esan dau len bai len aize beroaguak artzen yoateko.

GUATEMALA

Matxinadeak gora urten dau eta gobernu barria egin dabe onelaxe:

Errepublikako lendakaria Orellana jauna; Barruko ministrua, Alvarado; Gudakoa, Leonardo; Txinditzakoa, Gonzalez Campo; Jakintzakoa, Girón.